

1. Kasu praktikoa. Merkataria.

José Ramón Aierbe etxebizitza eta lokalen errefoma eta mantentze empresa baten jabea da. Ez du inoiz bere empresa Merkataritzako Erregistroan inskribatu ez eta bere emaztea den Jasone Arakamarekin ezkondu zenean ere. Caja Laboral-Euskadiko Kutxan 120.000 euroko mailegu bat eskatu duenean, bere emaztearen ondasun pribatiboekin maileguaz erantzuteko baimenaren baldintza jarri diote. Horrela egin du emazteak eta notaritzan egindako eskritura publikoaren kopia bat Kutxaren sukurtsalean aurkeztu du. Beste bat Merkataritzako Erregistrora eraman du.

Krisi egoera dela eta Aierberen negozioak galerak izan ditu, bezero askok ez bai dizkiote egindako lanak ordaindu. Kutxa eta beste hartzekodun batzuk emaztera zuzendu dira berak ordaindu ditzan zorrak bere ondare pribatiboarekin.

Jasone Arakamak, bestalde, argitalpen empresa bat du, bere gurasoengandik oinordetzan jasotakoa. Bera unibertsitateko irakaslea denez ez da inoiz enpresaz zuzenean arduratu. Gestioa Angel Zubiriak eramaten du, gurasoak izendatu zuten gerentea eta Jasonek mantendu duena, baina muga bat ezarriz bere ahalordean: 50.000 €tik gorako eragiketak Jasoneren aurretiazko baimena beharko dutelakoa. Ahalorde hori inskribatua izan da Merkataritzako Erregistroan.

Jasonek makina baten hornitzailearengandik eskutitz bat jaso du 75.000 € erreklamatu. Berak ez du salerosketa horren berririk izan eta ez daki ordaindu behar duen ala ez. Bestalde bidai agentzia batek Zubiriak New Yorkera egindako bidai baten gastuak galdatzen dizkio. Berak ez du bidai horren berririk izan eta zalantza bera du.

Jasoneri esaten diote bestalde, bere gerentea beste enpresa lehiakide batentzako ere lanean ari dela, Gure Lurra Argitalpena S.L.rentzako hain zuzen. Enpresa honekin kontaktuan jartzen da egia den jakiteko eta konfirmazioa jasotzen du. Gure Lurrakoek ere aserre Zubiria desizendatzen dute. Baina horretaz gain desleialtasunagatik demandatu nahi dute, alde batetik ez zielakoz beste enpresa batentzat lanean ari zela esan eta beste batetik beraien bezero batzuek konbentzitu dituelako Jasoneren enpresarekin harremanetan jartzeko. Zubiriak esaten du ez duela Gure Lurrakoekin eksklusibazko kontraturik sinatu eta hauek bazekitela Jasoneren enpresan lanean ari zela.

Galderak:

1. Jasone Arakamak erantzun beharko du bere ondare pribatiboarekin bere senarrarak Kutxarekin eta beste hartzekodunekin dituen zorretaz?
2. Ahalko diote Unibertsitaterengandik jasotzen duen soldata enbargatu?
3. Zer egin dezakete Aierbek eta Arakamak azken honen ondare pribatiboa salbu uzteko? Eta bere soldata salbu uzteko?
4. Eraginkorra da Arakamak Zubiriari ezarritako ahalordearen muga?
5. Ordaindu beharko ditu Arakamak Zubiriaren bidaiaren gastuak?
6. Eta makinaren prezioa?
7. Ahalko du Gure Lurra S.L.ek Zubiria desleialtasunagatik demandatu? Non oinarrituz?